ETXETIK ESKOLARA... KAMIÑORA ATERA GABE

MARTIN TEJERIA

Pinocho eta Chapete askotan elkarren etsai izango ziren nahi baduzu, bainan pertsona helduen mundu aspergarria azpikoz gora bidaltzea bien zeregina zuten, hori seguru: «Magníficas hazañas, insólitas proezas y empresas descabelladas del inagotable y famosísimo muñeco de madera y de su astuto rival de trapo». Gozatutako irakurketa eta une haiekin, espaloitik kamiñora bengantzaz ateratzeko moduetako bat izango zuten aurreko askok, behar bada. Beste gutxi batzuk, eskola barruan, Xabiertxo eta Martin Txilibitu potoloa ezagutzeko aukera izan omen zuten.

Guri ordea gerraondoko gerrateak suertatu zitzaizkigun etxerako bidean, hau da, Hazañas Bélicas, El Capitán Trueno eta geroago El Jabato. Lagun leial, burruka, printzesa dardarti, herensuge eta etsaiak desegindako tankeen arteko pasadizo haundi haiek hornitzen zituzten gure urte mukizuak... «con Matilde Vilariño, Matilde Conesa y Pedro Pablo Ayuso», orduko patio eta sukaldeetan arratsaldero ozenki zabaltzen ziren funtzioak.

Gure txikitango fantasia haiek Txokatea kaletik mamitu ziren eskolarako bidean eta, nere kasuan behintzat, beti

euskaraz egiten zidan Faustina Aierbek esku artean jarritako lehen erdal liburuen laguntzaz. Faustina eta Dote Aierbe maitagarriak. Liburu haietako pertsonaiek alanbrezko anka eta besoak izaten zituzten, bainan Cine Reinako pelikula «euritsu» eta lanbrotsuetan ikusten genituenak egiazkoak ziren benetan, Francoren eskoltako zaldun erromatarrak bezala. Gregorio Moránek orain bere liburuan «década triste» deitzen duen hartan bizi omen ginen, guk inozoki Alabergako sindikalaren etxeak egiten ikusten genituen bitartean... Gero, noizean behin Iztietara, zingira arteko lurretara etortzen ziren zirkoak eta Fueruen plazako komediante gosetiak txalotzen ikasi genuen. Zamalbideko buelta eta Donostiara bisita geratzen ziren: pasiatzera, plaiara eta «zapatak erostera».

Oraingo eskolumeak—oraingo telekumeak—Mazinger bezalako erraldoi elektronikoen laguntzaz gozatu ohi dira. Lehen, iluntzean, kale jokuak eta Matilde, Perico y Periquín izaten genituen. Orain ordu berean gerra planetarioak eta kale istiluak. Arratsean kaleko iraultzak barrikadak tolestatu eta pertsiana jaisten duenean, ritual hori kunplitzen denean, galaxietako gerrateak geratzen zaizkie gaur egungo kalekumeei. Eta alderantziz. Harrika hitz egitea zer den jakiteko leihora ateratzea besterik ez dute; kanpoan tiro hotsak eta guzti entzuten diren bitartean, etxeko salan laser izpiak ikus ditzakete dantzan haur zauritiuek. Askozaz ere finagoak diren laser izpiak. Eta tartean makina txanponjaleak, Luisito Arkonadaren azioak eta Otsailaren 23a. Garaian garaiko oinaze eta txotxongiloak.

GAURKO INGURUAZ ZERBAIT

Gaurko inguruari aldamenetik begira eta eskolatik etorkizunari. Errenterian inguruak muturralde latza jarri zuen aspaldi. Errosario baten gisa guztiek esan dutena errepikatu besterik ez dugu egiten: Beraun, Pontika, Iztieta, Galtzaraborda... Beraunen adibidez arazo bati bestea erasten zaio. Problema asko ditu oraindik bideratzen hasi gabe. Etorkinen berezko egoera osorik egokitu ez eta orain langabezia gaineratu behar diogu, kanpoko eta bertakoak elkartzen gaituen krisia. Lanik eza, alkoholismoa eta jende gazteak jasaten hasi duen drogaren morrontzarena. Auzo honetan hestualdi eta zailtasunak kale gurutzean azaldu ohi dira egunero. Bertan aritzen den maistra batek esaten zidanez, ikasleak eskolako edozein arazo duenean, gurasoei dei egin hitz egitera etor daitezen eta amak (haurren eskolatzeaz beti ama arduratzen da) etxean dituen mila arazoen erasoa botako du irakaslearen aurrean. Suertatu zaigun gizarte honetako instituzioek erantzun eta irtenbiderik ez dutela dirudienean, honelakoetan adibidez, eman ezin dezaketena espero du jendeak maisu eta maistrengandik. «Kuixidade» honetan murgildurik bizi gara.

Hormigoizko sarraski hau eraiki zutenean, hemen ez zen inolako eskolatze antolamendurik eta hasieran ikasketak lokal komertzialetan ematen ziren, guztir desegokiak eta batere osasuntsuak ez ziren lekutan. Hasierako arazo haiek konponduta daude gaur egun, 16 eta 24 gelako bi eskola eraiki bai dituzte, azkena Basanoagan. Bi ikastetxeen artean 1.500 bat haur hartzen dituzte, ia denak etorkinen seme-alabak. Bainan instalakuntzak eta guzti, egoera hemen ere ez da eredugarria: «Industrian lan postu bat aurkitzeko premiazkoak diren ikasketa murritzak burutzera doi-doi iritsi zintezke hemen» -dio irakasle talde batek. Presupostu honekin eta normalean etxeko giroa eta kalekoa deusetarako lagungarri gertatzen ez direlarik, ikaslearen irtenbideak zeintzu diren ezagutzen ditugu: eskola profesionalak, Institutoa eta kasu askotan kalea, zeure sakeletik osorik ordaindu behar dituzun akademiak kontutan eduki gabe, jakina. Aipatutako leku horietara nola helduko diren jakin dezagun, irakasle hauek berriro premia eta beharrak azaltzen dituzte: «Eskola publikoak medio minimoekin dirau. Eskola pribatuari diru laguntzak banatzen zaizkio eta horrela musika klaseak emango dituen irakaslea har lezake, adibidez». Bitartean Estatuak ez du diru gehiagorik ateratzen eskola publikoarentzat. Errenteria guztian adibidez psikologo bat bera ere ez dago. Gipuzkoa osorako delegazio mailan dozenerdira ez omen dira heltzen. «Gure artean—dio beste batek—musika, literatura edo beste edozein gai gustoko duenik dagoenean, orduan eman egiten da, bainan beti ezustean gertatzen diren gauzak dituzu».

«HIRU MARIAK»

Frankismoaren garaian, eskolan garrantzi haundia ematen ez zitzaien hiru arlo ezagutu genituen. Denok dakigu erlijioa, deportea eta politika «hiru mariak» zirela ikastaro haien barruan. Azken urteotan badirudi euskarak hartu duela eskola publiko eta ikastetxe pribatu askotan leku ezereztu hori. Gai honi buruz, usteltzen hasia den usteari buruz, jendeak hitz bi baino gehiago atera ditu. Orain arte egindakoa ikusirik, leku guztietan gauza bera esaten dizute, euskararen asignatura eskolaren barruan «bete» egiten den zerbait besterik ez dela alegia, eta horrela jarraituz gero hizkuntzak honelako eskoletan ez dadukala inorako etorkizunik.

Hemen euskara ematen ari diren bi irakaslek egoera galgarri hori baieztatu besterik ez digute egiten. «Haur txikiei egunean ordu erdia bakarrik ematen zaie, kontutan edukiz gainera gehiengoa guraso erdaldunen haurrek osatzen dutela. Beraungo eguneroko giroa ikusi besterik ez dago gainera, guraso askok euskararentzat duen jarrera ezkorraz ohartzeko...» Esan gabe doa euskararen ikasle hauek erdarak hartzen dituela alde guztietatik, telebista, liburu eta bizimoduaren arlo guztietatik. Gauza hauek ikusi eta entzunda, ez dut uste inor harrituko denik irakasle hauek eta baita euskaldunak diren ikasle bakanak, hemen baztertuta, galduta dabiltzala esaten badugu. «Ondorioak bistan daude. Hemengo haurrek behinepein ez dute euskara ikasiko». Ingurugiro guztiz erdaldun indartsu bati ez baizaio material eta metodologiaz behar bezala erantzuten, eta horien ondoan irakaslegoaren prestakuntza hobe baten beharra jarriko genuke hemen. Eusko Gobernuaren Normalizazio Lege eta planketa bereziek ekarriko dutena ikusiko dugu aurrerantzean.

AUZOA, GIROA, LIBURUAK...

Axaleko adibide bezala hartu dugun auzo honetan (bederatzi mila biztanle inguru duen Beraun honetan) jende gazteak ez du kultur ekintzetan murgiltzeko irtenbide askorik. Irakasle taldekoek esaten zigutenez, gurasoen parte hartzea kiroletara

zuzendua dago nagusiki. Mutilak futbolean aritzen dira eta neskak ia beti eskubaloiean, gurasoren bat entrenatzaile dutelarik. Ikastetxetako Gurasoen Elkarteak dira kirol ekintza hauetaz osoki arduratzen direnak. Bestalde, zinea ikustera joateko gehienetan Don Boscora jotzen dute.

Galtzarabordara abiatuz gero, askorentzat biltoki egokia gertatu dena liburutegia dugu. Herriko liburutegi berriak orain-txe bete du urtea; behekoa leku egokiena ez zela eta, Galtzarabordan jartzea primeran etorri zaie goiko auzoetako ikasleei. Parte kalera hurbildu gara bertako gora-beherak jakin asmoz eta Julen Perurena arduradunari uzten diogu orain hitza. Berak gertutik jasotako esperientziaz hitz egin dezake. Liburutegiari, bibliotekari, eguneroko lana eskaintzen dio eta arduraren batera lanerako modu berriak eta iritzia: «Nere ustez Errenteriak zerbait gehiago merezi zuen. Halare Kulturakoen asmoen artean Errenteria erdian ondo hornitutako liburutegi bat zabaltzea dagoela uste dut, hemengo hau itxi gabe».

—Orduan horrek esan nahi du, auzoei begira eta, nolabaiteko deszentralizazio bati ekin zaiola, ezta?

—Bai. Eta deszentralizazio ideia horri jarraituz Udalak dirua ematen die Auzo Elarteei adibidez, beren liburutegiak jantzi ditzaten. Guri joan den urtean 800.000 pezeta eman zizkigun eta aurten berriz miloia.

Julen Perurenak lan modu berriak ezarri dituela esaten nizuen. Eta tratua. Biblioteka zaharrek izaten duten giro aldagaitz eta estatikoari haize berriak kontrajarri dizkie. Hormetan Mafalda, Zakilixut edo AC/DC aurki ditzakezu keinuka.

—Zer nolako eragina du liburutegiak auzo hauetan?

—Kontutan hartzekoa gutxienik. Egunean 80 pertsona inguru etortzen zait liburu eske. Hirurogei bat haur gainontzekoak Institutoko ikasleak. Aurten bakarrik 400 bazkide berri ditugu eta kopuru hori haziz doa egunetik egunera. Era askotako jendea etortzen da, noski. Irakurtzea gustatzen ez zaion «punky» gazte batek hasieran santuak ikusi nahiko ditu, rock musika, sexualidadea, drogak... bainan bere gustoko gaiak azaltzen bazaizkio, azkenean irakurtzen hasiko da. Gero euskara ikasten edo-ta alfabetatzen ari direnak... Nobelak ere alokatzen ditugu.

Julenek dionez, harreman eta «ligue» bila datorrenik ez omen da falta. Euskal liburuen sailean ikusmiran hasten, garenean hauxe dio: «Orain arte euskal liburu gutxi zegoen, bainan piskanaka argitaratzen den guztia ekartzea lortu dugu. Modurik aproposena argitaletxeei zuzenean eskatzea izan da, horrek asko merkatzen baititu liburuak. Dena den, lehen esaten nizun bezala, hau baino gehiago merezi dugu. Talde baten laguntza bagenu kultur eginkizun hainbat prestatuko genuke. Liburutegia ez dadila izan betiko mamua, betiko gauza serio eta eskuragaitza».

Joan den urteko OARSO honetan bertan, Kulturako Batzordeak herri mailan martxan diren ekintza zenbaiten berri aipagarriak ematen zizkigun. Plastika Arte Akademiaren zailtasun eta oztopoen ondoan udal artxiboaren berritzea, Musika Akademia, Xenpelar Etxea, orain barruan ekintza asko hartuko dituen Madalen kaleko Kultur Etxea eta horien artean Perurenak esan digun auzoetarako plangintzarena. Eskolak, zalantzarik gabe, herri mailan ahalik eta ondoen hornituta beharrezkoak dituen osagaiak. Liburuak Galtzarabordatik Zamalbide, Gabierrota edo Agustinetara eraman behar dira. Eta liburuak bezala beste gauza asko.

Izan ere, urte sasoi honetan, haurrak hondartzan dabiltzan bitartean, erdi lo daudela dirudi margodun ipuin haundiak, beren sekreto harrigarriak gordetzen, bainan apal batetik Asterix gudari azkarrak, datorren negurako antolatzen ari den ibilaldi batetara joan daitezen luzatuko die gonbita. Hondartzatik etorri bezain pronto.